



Esp.kodea: 2021YHIT0006

Gaia: Euskadi BonoDenda 2021
Hasiera eguna: 2021/10/06

JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko urriaren 14an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“Euskadi BonoDenda programa 2021eko kanpainari atxikitzea (2021YHIT0006)”

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Tokiko Merkataritza Batzordeburuaren ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2021eko urrian, deskontu bonuen programaren bigarren edizioa jarri da martxan, EAEko udalerrietako tokiko saltoki txikietan kontsumoa sustatzeko. Programan EAEko udalek ere parte har dezakete, ekimena sustatu duten erakundeen arteko lankidetzaz esparruan oinarrituta.

Programan parte hartzeko jarduketa protokolo orokor bat ezartzen da. Protokolo horretan, administrazioak konpromisoa hartzen du elkarrekin lan egiteko. Programaren sustatzaileak dira Eusko Jaurlaritza, Gasteizko Udala eta EUDEL. Udalerrri bakoitzak aukera izango du programa honetara atxikitzeko erakunde sustatzaile gisa, jarduketa protokolo orokor bat onartuz. Programa hiru lurralde historikoetako merkataritza-ganberen lankidetzarekin gauzatuko da. Udal bakoitzak programari ematen dizkion baliabide ekonomikoak zuzenean bere udalerriko enpresa eta establezimenduetara bideratuko dira.

Programa honen aurrekontu-zuzkidura da 4.650.000 eurokoa da eta jarriko dira merkatuan 465.00 bono EAE mailan, Gipuzkoari dagokiolarik 152.287 bono eta udalerrri bakoitzari egokituko zaizkio herriko merkataria interesdun kopuruaren arabera. Bono kopuru honi batuko zaizkio, udalerrriak berak egindako aportazioaren arabera, dagokion bono kopurua.

Gipuzkoako ganbarak kudeatuko du deskontu bonuen programa eta kostea izango da hurrengoa: Plataforma teknologikoa eta loturako zerbitzuak, jaulkitako bonuen zenbatekoaren %4, gehi BEZ eta Ganberaren beste kudeaketa kostuak, jaulkitako bonuen guztizko zenbatekoaren %1,5, gehi BEZ.

Deskontu bonuak EAEko edozein herritarrek eskuratu ahaliko ditu eta 30 euroko balioa izango dute, herritarrek 30 euroko erosketa bakoitzeko 10 euroko deskontu bonua eskuratuko du. Deskontu-bonuak trukatzeko bi aldi ezartzen dira, lehengoa abenduaren 5ean amaituko da eta bigarrena 2022ko urtarrilaren 10ean hasi eta martxoaren 31n bukatuko da.

Batzordeburuak proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

LEHENENGOA: Onartzea Arrasateko Udala Euskadi BonoDenda kanpainara atxikitzea eta programaren protokolo orokorrak ezartzen duena.

Kodea	BB21/01133	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2021/urr./19	CUDO	000.0055.AAAAM5WF.C.spe0	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM5WFC.spe0			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2021YHIT0006

Gaia: Euskadi BonoDenda 2021
Hasiera eguna: 2021/10/06

BIGARRENA: Euskadi BonoDenda programako Eskaera atxikimendua sinatzea, EAEko tokiko saltoki txikia suspertzeko eta hiriko merkataritzan kontsumoa sustatzeko.

HIRUGARRENA: Onartzea eta sinatzea Lankidetzaren Hitzarmena Gipuzkoako Ganbararekin (Q2073001F) bonoen kudeaketa egiteko.

LAUGARRENA: Onartzea 30.000 euroko gastua bonoak finantzatzeko eta 1.996,5 euroko gastua bonoen kudeaketarako. Bonoak finantzatzeko dira Merkataritzako dirulaguntzak (1 0700.480.431.00.00 2021) partidarekin eta kudeaketa gastua finantzatzeko dira Komertzioa aktibitateak (1 0700.226.431.00.01) partidarekin.”

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRATZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSIOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.

Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurtsio aurkeztu dezakezu.

Idazkaria

Kodea	BB21/01133	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2021/urr./19	CUDO	000.0055.AAAAM5WF.C.spe0	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAM5WFC.spe0			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				